

## KOSME DAMIAN CHURRUKA.

ICHAS-GIZON UMANTARI DAGOKION OÑ-ALKIA

ODA PREMIADA EN LOS JUEGOS FLORALES DE SAN SEBASTIAN.

¿Ez da egia gizaldi askok  
Zura dutela usteltzen,  
Ex da ziorra urteak ere  
Gaztea dutela zartzen,  
Ez da jakiañ gure bizitza  
Denborak duela aitutzen,  
Eta umantak beti bizirik  
Nola ditugu ikusten?

Gizon chikien egiñ guztiak  
Kia bezelassen berdiñ,  
Eriotzak putz egiñ orduko  
Oi ditu denak desegiñ;  
¿Umant argien azaiñ aundirik  
Denborak nun ta noiz du ill?  
¿Noiz eriotzak burrukatzeko  
Biotzik dauka oyekiñ?

Nola zanpatzen duten umantak  
Oñ-alki galant ederra,  
Beren azaiñak zanpatu zuten  
Eriotz zital okerra;  
Illunduko onek aisago luke  
Egun sentiko izarra,  
Itzali baño gizon ospatsu  
Eta umanten izena.

Umant aundiak nola dituan  
Ainbeste Euskal-erriak,  
Gaur alabatu gura nituke  
Baten bertute argiak;

Milla ta aundiak badira ere  
Emengo aitz zeñ mendiak,  
Dira geyago ta aundiagoak  
Seme chit miragarriak.

Beraz, ez aite Arno i ere,  
Ez aite izan aiñ arrua,  
Ainbesteraño alchaturikan  
Lerden lerdetik burua;  
Seme bat badek ire errian  
Askozaz altuagoa,  
Zeiñen oñ-alki, gaur ipintzeko  
Ez aut billatzen naikoa.

Motrikok dauzkan mugen artean  
I aiz chit errez barrutzen,  
Kosme Churrukak leku geyago  
Ordea ziguk eskatzen;  
Erria ez ezik erresuma bat  
Ez diat diña billatzen,  
Bere izena ni joalako  
Mundu guztian zabaltzen.

Apolo zure laguntasuna  
Ederki letorkit emen,  
Bial zadazu musa eder bat  
Argitutzera gaur arren;  
Baztar danetan nere kantua  
Gozoro adi dezaten,  
Eta euskaldun umant batekiñ  
Arri ta zurtu ditezen.

Zurtu ditezen chikiak oso,  
Zurtu ditezen aundiak,  
Zurtu ditezen gizon illunak,  
Zurtu ditezen argiak;  
Zurtu ditezen denak guztiak,  
Entzunik bertute aundiak,  
Gipuzkoako seme ernai baten  
Gutzizko miragarriak.

Miragarriak dirala guztiz  
Esaten ez det lotsarik,  
Probatzeko ere itzcho bi baño  
Ez ditut bear besterik;  
Mundu guztiak ikusi beza  
Ote diodan gezurrik,  
Ote diodan Churrukagatik  
Izandu ez dan gauzarik.

¿Nun da bestela ichas-gauzetan  
Nun da onekin berdiña?  
¿Nun da Churrukak aña lan aundi  
Nun da beste bat egiña?  
¿Nun armari ta buruzaririk?  
¿Nun au lako mapagiña?  
¿Nun izkribatzen, nun arkitxenda  
¿Nun Kosme beziñ bikaiña?

Ez det billatzen liburuetan  
Bat jartzekorik onduan,  
Ez det billatzen ainbeste doaz  
Jantzirik onen moduan;  
Ez det billatzen antziña-eran,  
Ez det billatzen gaurkuan,  
Ez det topatzen, ez det arkitzen  
Iñorcho ere munduan.

Bakar bakarrik billatutzen det  
Kosme Churruca aundia,  
Bakar bakarrik topatutzen det  
Doai danakin jantzia,

Bakarrik nola izar danetan  
Argien dan Eguzkia,  
Kosme ere da ichas-gizonen  
Umant danetan nausia.

Kondairak kantabeza nai badu  
Ill zala gure umanta,  
Irabazirik Trafalgar-eko  
Jazarran koroï galanta;  
Kantatuko det baña nik beti,  
Ori orrela ez dala,  
Koroï ederra gozatzer a igo  
Zuela zeruetara.

Kantatuko det bizi zaigula,  
Gizon aña miragarria,  
Kantatuko det bere bizia  
Dala eziñ ilgarría;  
Kantatuko det bitzta ori  
Dala umanten saria,  
Umant artean zeruan berriz  
Dala Churruka jarria.

¡Oh! Kosme, jazo albanizuke  
Gaur nai nukean dorria!  
¡Ichasoaren erdi erdian  
Olimpo beziñ aundia!  
Bere gañean ikuste arren  
Altasunez zu jarria,  
Zeradelako España baten  
Seme aña onragarria.

Orrelakose jargoi eder bat  
Zerorrek dezu merezi,  
Arrigarritzko bertute oyekin  
Dezulako irabazi,  
Mundu danari beatz onekin  
Zatzayodan erakutsi,  
Oyuz esanaz ¡ará, an! Churruka,  
Nun jarridedan ikusi.